

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5166

135/2022 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, Asociación de Desarrollo Rural de Durangaldea Urkiola-Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea izeneko elkarteari onura publikokoa dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Asociación de Desarrollo Rural de Durangaldea Urkiola-Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea izeneko elkarteak aitormen hori emateko eskatu du. Bere ustez, elkarte onura publikokoa dela aitortzea merezi du interes orokorra sustatzen duelako, batez ere Durangaldean ongizatea sustatzera bideratutako jardueren bitartez, baina, era berean, gizarte osoari mesede eginez, landa-inguruneari laguntzeko eta kudeaketa jasangarrian oinarritutako lehen sektorea sustatzeko ekintzen bidez.

Asociación de Desarrollo Rural de Durangaldea Urkiola-Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea izeneko elkarte Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dago (zenbakia: AS/B/00391/1987), 1987ko martxoaren 2an emandako Ebazpena dela bide.

Durangaldean garatzen ditu bere eginkizunak.

Eratu zenetik, Asociación de Desarrollo Rural de Durangaldea Urkiola-Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea izeneko elkarteak bere jarduerak bere helburu nagusia lortzera bideratzen ditu, hau da, jarduera ekonomiko dinamikoa duen eta ekonomia autoktonoan oinarritu duen ingurunea bultzatzea. Hori guztia, sektore turistiko arduratsu eta jasangarri baten eta ekintzaile, berritzaile, aktibo eta parte-hartzaile den lehen sektore baten bidez (gazteen erreleboa duen, abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoaren sustatzailea den eta profesionalagoa zein dibertsifikatuagoa den lehen sektore bat). Horretarako, bere jarduerak ekintzailtza eta berrikuntza sustatzera, eskualdeko baliabide propioetatik negozio berriak identifikatzera eta lankidetzeta eta barne-baliabideak kudeatzeko gai den eskualdea bultzatzera bideratzen dira, biztanleen eta enpresen mesedetan.

Jarduera horiek guztiak interes orokorrekotzat jotzen ditu gizarteak, oro har.

Ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 45.2 artikulua xedatutakoarekin bat eginez, onura publikoa Gobernu Kontseiluak emandako dekretu bidez aitortuko da, gaiaren arabera egoki diren sailek proposamena egin ostean. Agindu hori betez, dagokion espedientea izapidetu da, eta sailek eta erakundeek egindako txostenak erantsi zaizkio espedienteari.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, entitate eta erakunde interesdu-

2022ko azaroaren 28a, astelehena

nek emandako txostenak ikusi ondoren, Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 15ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. - Asociación de Desarrollo Rural de Durangaldea Urkiola-Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea onura publikokoa dela aitortzea, bere jardueren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita. Elkarte hori Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, AS/B/00391/1987 zenbakiarekin.

Horrekin batera, aitorten honi dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 43. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.